



Ixorien zoria



Juan Manuel Etxebarria

TXORIEN ZORIA

MATXINSALTO BILDUMA

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

© IBAIZABAL ARGITALETXEA

© JUAN MANUEL ETXEBARRIA

BILDUMEAREN DISEINUA: Juan Carlos Landa

AZALEKO DISEINUA: Marcos San Blas

AZALEKO MARRAZKIA: Jesse

BARRUKO MARRAZKIAK: Jesse

ISBN: 84-8325-126-4

LEGEZKO GORDAILUA: BI-956-98

BILDUMEAREN ANTOLATZAILEA: Sabin Gorrotxategi

BILDUMEAREN KOORDINATZAILEA: Eukene Herrera

BILDUMEAREN AHOLKULARIAK: Jabi Artaraz, Maite Bilbao,
Marisa Elorriaga, Begoña Garaizar eta Iñaki Zubeldia

BIZKAIERAZ: Sabin Barruetabeña

MAKETATZAILEAK: Julia Alberdi eta Begoña Garaizabal

R.G.M. TAILER GRAFIKOAK


ALE KOPURUA: 1000

TXORIEN ZORIA

Egilea: Juan Manuel Etxebarria

Marrazkilaria: Jesse





Kaixo lagunok!

Matxinsalto abenturazale
amorratua nozue.

Ipuin honegaz bidaia zoragarria
egitez gain nire lagun barriak
aurkeztu gura deusuedaz, hala
nola, txepetxa, arranoa, usoa,
kukua, saia...

Zatoze nigaz!



Txori-batzarra

Aspaldiko egun haretan, udabarriko eguzkiak bere betiko izpi gozoez laztandu arren gure Euskal Herria, hegazti hegalarien egunsentiko txirripitixioa barruntatu ere ez zan egiten. Ez zan gitxiagorako, izan ere, hegaztiak gaxorik eta bihozbera egozan ezusteko eltxarrak jota. Egunero lez kantatu gura ebenak, ezin eben ahorik askatu. Hegaz egin guran ebilzanak indar barik aurkitzen ziran. Jateari emon eutsienak, ezin birapoan ezer sartu. Berba baten esanda, lurjota!

Egunak joan, joaten ziran eta etorri ere bai, baina hegaztiak euren kabietan jarraitzen eben lozorroan eta adore handi barik.

Egun baten, arranoa bere buruagaz hasarratu zan eta egun gehiagori joaten itzi baino lehen esan eban bere barrurako:

—Zer da hegaztion artean gertatzen jakuna? Zer dala eta dator etorri ere eltxar hau gurera? Ez horixe, holan ezin dogu jarraitu eta gerokoari itxaron barik, txori-batzarra egingo dot eta ordezkari bakoitzari itaundu zer izan daitekean hau ezbehar hau!

Pentsatu eta egin. Atera ahal zan lekutik hegaz egiteko indarrak eta hasi zan, banan-banan, ordezkari bakoitzari bere izenetik deitzen esanez:

—Zatoze lehenbailehen Gorbeiaiko Mairulegorretako kobazulora gure egoera latz hau argitzeko, izan ere, baten bat izango da eta erruduna. Zatoze arin!



Hegaztiak, lozorroan egon arren euren kabietan, ikaratu egin ziran arranoaren deiadar harrigarria entzutean.

Hamabi ziran batzarkideak, arranoa eta beste hamaika eta bata lehenago beste geroago, danak ere berehala hartu eben Mairulegorretarako hegabidea.

Saia joan jakon lehenengo eta kobazulora ailegatu zanean hauxe esan eutsan arranoak:

—Indartsua eta jatuna izan haz beti, baina inoiz baino jausiago ikusten haut idun-kokoteko lumak ere galduta!

—Ba, bai, nik neuk ere ez joat sekula neure burua holan ikusi!

—Jarri hadi hemen neure ezkerre-
deko jesarlekuan fiskal beharrak egiteko!

Arranoa eta saiaren alkarrizketea amaitu orduko han egoan usoa ere eta badinotso arranoak:

—Etorri hadi nire eskumako jesar-
lekura, hik egingo don defentsa beharra legeak horixe eskatzen jon eta.

Epaimahaia prest egoan. Handik lasterrera, mirua, belea, hontza, zozoa, okila, kukua eta txepetxa heldu ziran, eta tokia hartu.



Halako baten, antxeta ere etorri jaken, eta ezusteko berbaren batzuk ez entzuteko, holan berba egin eban:

—Parkatuko deustazue, itsasoa urrun dago eta ezin izan dot lehenago etorri!

Handik gerora, saguzarrak egin eban hegazkada bat Mairulegorretako koba-sabaitik eta esan eutsan arranoari:

—Arrano jauna, berorren deiadarra entzun dodanean zalantzan jarri naz, jakina, ni neu, txori itxurakoa nau baina badaki ezta?

—Beno, —erantzun eutsan arranoak—, geratu hadi geugaz, beste arlo baten, balea ere arrain itxurakoa dok baina ez beste arrainak lakoa.

Era horretara osotu eben mahain-gurua. Gehiago edo gitxiago danak egozan urduri, ahulduta egon arren.

Urdurien txepetxa egoan. Zelan ez ba, txikiena zan eta. Jarri ere, usoaren ondoan egin zan batez ere saiaren begiradak ikusi ere ez egiteko.

Hamabikote hori oboan-oboan jesarrita egoanean, arranoak berbea hartu eta hasi jaken esaten:

—Hasteko, ondo etorriak! Ia-ia esan beharrik ere ez daukatsuet, esan eban, zeuon itxurea ikusita nahikoa dalako, baina, txorien erregea nazanez, esan behar dana esan egin behar da. Gure maminetan sufritzen gabiltzana nonbaitetik edo zerbaitetik jatorku eta jakin egin gura dot ia gutariko baten baten txorikeriaren batetik ete jatorkun eltxar

hau. Horretarako, ni neugandik hasita, banan-banan bakoitzak bere jokabideen autortza egingo dau eta bateren bat epaitu eta zigortu behar bada ere, egin egingo da danon onerako! Esan beharrekoa esanda dago!

Arranoaren berba hain gogorrak entzutean, danak bildurtu ziran baina agindua bete egin behar zan eta isilune baten barruan danak hasi ziran euren jokabidea aztertzen.



Arranoa

Isiltasun haretan ez zan inor ausartzen inori begiratzen eta ia danak egozala pikua hegapean sartuta, badino arranoak:

—Ni neu hasiko najatzue nire jokabideen autortza egiten, izan ere zuon erregea nozue eta.

Ba, begira. Nik errege lez neure eskubideak dodaz gura dodana egiteko. Zuen gainetik nago. Hegaz ere altuen egiten dot zuok danok ikusteko. Hegaz-

kadea bera ere inork baino ederragoa eta dotoreagoa daukat. Noizbehinka, Mari Anbotokoa ere ikusi izan dot Anbototik Gorbeiarantz joaten eta ha ere ikaratuta geratu da nire nitasunaz.

Huts egiteak dirala eta, ez dakit ba txarto zer egin dodan, zeuok esango deustazue esatekorik badozue.

Dana dala, gogoan dodan huskeria bat kontatuko deutsuet, erlearena, erle-erregina bategaz gertatua:

Behin baten, gaztaina-harro baten kokatuta egoan erlauntza batera hurreratu nintzan ezti apur bat jateko asmoz. Hurreratuz batera erle guztiak egin eben alde eta dranga-dranga bete-bete egin neban eztiz nire birapoa.

Erleak hasarre egozan baina nor ausartu niri ezer egiten? Egia esateko

bildur apur bat baneban; alde batetik baserritarrena, banekialako baso-erlauntza baten enborrean ezaugarriren bat egon ezkerro, jabeduna zala, eta harek baeukan, eta beste alde batetik, erle guztiak danak batera kontra etorte bat izan balitz ez dakit zelan libratuko nintzan eta badaezpada ondoko arbola baten puntarra jo neban.



Eztiaren gozoa gozaten nengoala, erlauntza barrutik deiadar egin eustan eta gogor gainera, erle-erreginak. Nik, ostera, ez neutsan kasurik bat ere egin eta eztiaren gozotasunean loak hartu ninduan.

Lo gozoan nengoala erle-erregina hurreratu egin jatan, baina ez hegaz, oinez baino, bere hegazkada zaratatsuak ez nengian itzartu. Hurreratu bakarrik ez, halako baten nire erpa bateko barruko maminetik eztena ez eustan ba sartu eta min egin!

Grrrraaaa!, esanda itzartu nintzanean, erpa-maminean eztena sartuta neukan erle-erregina birrindu egin neban, ausartia halakoa. Gero, jakina, erle-erregina birrintzean, erlauntza guztia alferrik galdu zan. Barrero ez dot izan horrelako erasorik. Hauxe dozue nire huskeriaren autortza.



Saia

Arranoaren arranokeriak entzun eta gero, ez eban inork ahorik askatu kontra egiteko eta jarraian saiak jaso eban pikua eta esan:

—Arranoaren hurrengoa ni neu nozue, saia, eta nik neuk ez deusat errurik botako arrano nagusiari, bera barik zer izango ete litzateke gure artean!

Autortza kontuan zer autortuko deusuet ba? Nik animalia batzuk hil ere egiten dodaz baina gose nazanetan

bakarrik, bestela ez. Gainera, nik gaitzak jotako abere akabatuak jaten dodaz gehienetan eta era horretara pestekeria arriskuak garbitu, gaineko mesedea base-rritarrentzat! Neuretzat ere arriskutsua da okela ustelak jatea eta badaezpada mikrobioak alde egin arte ez dot pikurik okelan sartzen. Buruargia izan behar da ez burubakoa!

Batzuetan hasarratu ere egiten naz basapizti batzuekaz neureak diran mugarrietan sartzeagaitik, azeriagaz esate baterako.

Behin baten, azeri gosebera batek ardi baten haragi zatirik ederrenak hartu eta alde egin eustan, baina itxaron eta itxaron bengantzara jo neban.

Edurra mara-mara eragoion negu gogor baten, errukarri ikusi neban azeria

edurtzatik ibili ezinik, hankak edurrean sartzen jakozalako. Saltuak egiten ebazan baina jausterakoan barriro ere hankak edur barrura eta sabeleko golpeak ia arnasa barik izten eban. Horrezaz gainera gose ere bazan, zelan ez ba, ez eukan ezertariko jakirik eta! Egoera larri horretan egoala, hegaz hasi nintxakon bere gaine-gainetik eta azeriari bere barruko gose-ametsa igarririk esan neutsan:

—Begiratu egik gorantz eta ikusi zelan jausten diran oilo-luma zuri-zuriak zeruko hodei baltzetatik behera.

—Ez dok izango! —erantzun eus-tan azeriak ahotik adurra eriola.

—Bai, jakina, zeruetan bazkari eder bat prestatzen ziharduek eta horretarako oilasko zuriak lumatzen, zer deritxok?

—Eritzi? Zer esango deuat ba, nor egon leitekean bertan oilasko artean neure tripa-zorri eta guzti.

—Hori baino ez badok, egina jagok. Neuk eroango haut hodei gainetara hegazkada baten eta han jan ahal izango dozak heure jatekook!

Pentsatu eta egin. Azeriak sinestu egin eustan eta nik neuk ere birritan pentsatu barik, hartu neure hanka bieta-ko erpetan azeri lapurra eta hara han non ginoazan edur maluta bitarteetatik gora eta gora. Igo eta igo, hodei guztiak zeharkatu genduzan eta han gengoan laino zuri-zuriaren gainean eta zeru urdinaren bitartean. Horretara badinost azeriak:

—Hau badok zerua nik neuk ez joat oilaskorik ikusten. Nora ekarri nok?

—Nora? —erantzun neutsan—, laster ikusiko dok ikusi ere lapur arraio horrek. Oraingo honetan hireak egin jok!



Berbok esan neutsazanean, erpa guztiak batera soltatu eta han bota neban azeria aurretik ezagutzen neban haitzik latzenera. Hantxe birrindu zan azeria eta amorruren amorruez bere okela birrinak jaten ere ez nintzan bajatu. Ondo etorriko jaken beste txori txikiago batzuei.

Hauxe dozue ba, nire autortza. Txarrik baneu kontatuko neuke baina ez dot uste nire saikeriak deliturako diranik.

Saiaren autortzeak ere ez eban ezelako erantzunik hartu. Arranoak pikua gora eta behera erabili eban justifikatze eran eta beste txori batzuk ere beste hainbeste. Nor ausartu fiskal gogorri aurka egiten?

Arranoak orduan, usoari eskumako hegoa luzatu eta bere jokabideen barri emoteko eskatu eutsan. Txepetxak ere orduantxe atera eban bere burua hegoetik, ordurarte atrebitu ere ez zalako egiten.



Usoa

Usoak, irribarre egin eban lehenengo eta banan-banan begiratu kide guztiei, txepetxa ere eskumako hegoaz laztanduz. Ondoren, holan esan eban:

—Nik, egia esateko, bizitzeko behar dodana baino ez dot jaten. Zuetariko asko ez lez, ni neu naz gizon ehiztarien helburuetariko bat. Batez ere, pasea tokatzen danean, dana da tiroa eta usoetariko asko eta asko kazolara goaz, ehiztari zein gai-netikoak gozo-gozo jateko.

Nire izena entzutetsu egin da gizon-emakumeen artean. Batzuetan esaera lez ere erabilten nabe: “Kanpoan uso, etxean otso”. Beste batzuetan abestietan ere bai: “Uso zuria errazu...”

Beharbada, nire hutsetariko bat hauxe dozue: malezia gitxikoa izatea. Izan ere, zuok beste txoriok, beti darabilzue burua batera eta bestera nork zer egingoaren zain, baina nik, konfidantza gehiegi izateagatik edo, deskuiduak izaten dodaz eta aurrerantzean zuhurrago ibili beharko neuke.

Mesedeak ere egiten dodaz eta, “On eginaren pagua sarritan ate ostean palua” esaerea batzuetan beteten bada ere, niri besterantz ere gertatu izan jat, onaren atzean ona etorri. Entzun bestela:

Udako hodei-zaparrada batek erre-
kak hazi eta hazi egin ebazan behin
baten. Ni haritz baten ezkutatu nintzan
hegoei astinaldi bat emon eta gero.

Errekak geroago eta handiago
etorzan eta beste zereginik ez neukanez,
errekako urtzari adi nengoan. Halako
baten erreka ertzeko bedar baten puntan
inurri errukarri bat ikusi neban urak noiz
iruntsiko. Arduratu egin nintzan eta,
birritan pentsatu barik, urten haritzetik,
hurreratu hegaz-hegaz erreka ertzera,
erdibitu inurria dingilizka egoan bedarra
eta bizia salbatu neutsan inurri gizagai-
xoari.

Inurriak sinestu ere ezin eban egin.
Hegapean laztandu neban hotzakilik eta
bildurrak akabatzen egoalako. Berak
bere aldetik kili-kiliak egiten eustazan

hegabean eta zihur nago eskerrak emon guran izango zana.

Atertu, atertu eban halako baten eta urak bajatu ziranean hartu barriro inurria eta bere inurri-mendira eroan neban. Han ebilzan bizirik geratu ziranak, inurri-mendi barruko hazitxoak ateratzen eguzkitara, sikatu ondoren barriz barruan gordeteko.

Baina lehen esan deutsuedan lez, niri on egiteak on emon eustan. Entzun, entzun orain kontatuko deutsuedan hau, hara:

Ez zan paseko garaia, gehiago oraindino, ehizea debekatutako garaia zan eta, jakina, lehendik ere malezia gixikoa izanik, garaia ezagututa, askoz ere nasaiago nengoan, ezer eta inoren bildur barik.

Egia esateko, nik neuk ez neban
“ai-ai” bat baino entzun inguruetara
begira nengoan arbolapean.

Baina geroago jakin nebenez,
ezkutuko ehiztari bat ibili zan legez kon-
trako ehizan eta ni ikusi ninduanean
eskopetea kargatzen hasi zan.

Inurria, nik neuk bizia emondakoa,
jakina, konturatu egin zan eta han ebilen
hots egin guran, baina alferrik.



Halako baten, ehiztariak eskopetea niganantz zuzendu ebanean, inurriak, soinekoetatik gora igon eta gatiluko hartzamarreraino heldurik, zaztl, haginka egin eutsan.

Orduantxe entzun neban nik entzun nebana eta eskerrak horrexeri alde egin bizia salbatuz. Ikusten dozue zein ederra dan batak besteari laguntzea?

Usoaren usotasunak ondo entzun eta hobeto hartu ziran txorikideen artean. Txepetxa ere adoretuago ikusten zan usoaren babesean.



Mirua

Handik lasterrera, miruak “miii-miii-miii” batzuk bota ebazan eta berbaz hasteko baimena eskatu. Holan hasi jaken berbetan:

Ni mirua nozue eta nik neuk ere neure autortza egin behar deutsuet. Hasteko, gauzak asko aldatu jatazala esan behar deutsuet. Lehenago, baserrietan oilategietatik kanpo ibilten ziran oiloak eta lokatu orduan arrautzak ezarri ere bai txitak ateratzeko. Garai haretan ederto nenbilen ibili ere txitak errez lortzen

nebazalako oilalokearen lokakeriak gora-behera. Baina orain ez, orain oilategi barruetan egiten dira oilo-beharrak eta sarritan granjetan bakarrik. Zer ekarri deustan honek? Ba, gosea, eta zelakoa gainera!

Orain hor nabil bazterrik bazter ahal dodana harrapatzen, saguak, ziraunak, mamarroak eta suge txikietarainoko guztiak.


Nirea amaitzeko, harrokeria baten barri ere emon behar deustuet, hain zuzen ere, nire ahotsa galdu nebanarena.

Beti nengoan zaldi eta behorren irrintziaren inbidian. Irrintzi hori lortuz gero, animaliak baino nagusiagoa izango nintzala uste neban eta ahalegin guztiak egin nebazan nire ahotsa aldatzen.

Ekin eta ekin egin ondoren, bada-kizue zer gertatu jatan? Ba, begira,

lehengo neure ahotsa galdu eta zaldi-
behorrarena ikasi ez. Horrexegatik nau-
kazue beti miiii-miiii-miii baino egiten
ez dodala.







Antxeta

Antxeta izan zan miruaren ostean berbea hartu eban itsas-txoria. Erreberentzia batzuk egin eutsazan arranoari eta beste barik honela ekin eutsan:

Kaixo, ateriko lagunok! Ikusten zaituedanez, niri baino zuoi beste guztioi kalte gehiago egin deutsue eltxar zorixarreko honek. Egia esan ni neu itsasotik bizi najatzue eta nire arrain-jakiak fresko-freskoak dira, itsasotik zuzen-zuzenean hartutakoak beti.


Dana dala, azken urteotan, kutsadura apur bat ere agertu da gure itsasora eta, jakina, jakian ere igarten da, ezagun da.

Usoari entzun deusadanean, barriro ere esan deusat neure buruari ia ehiztariak zergaitik ez deustien tirorik botaten. Ziur-ziur ez nago baina arrain-jakidunon haragia ez ei da jatunen gustukoa. Behin itsas aldeko baserritar bati ere entzun neutsan arraina jaten emondako txarria jan ere ezin ebela egin, gustu arraroa eukan, antza. Zeozer izango da.

Autortu, zer egingo deusuet ba? Ni neu, libre bizi naz eta dodazan arriskuak itsasoagaz konpondu behar dodaz, nogaz ba, osterantzean?

Autortzekotan nire neure gula egingo neuke. Gura beste arrain daukat

jateko eta era guztietakoak. Birapoa bete-bete egin orduan atsedena hartzeko toki aproposak ere badodaz, Izaro-isola adibidez.



Baina egia esateko, gogo-gogoan daukat behin miruak esan eustana eta batzuetan kasu egingo baneutso hobeto. Mirua ondo gogoratuko da egin ere baina itsasotik bizitzeko erabagia hartu nebanean, hauxe esan eustan:

—Antxeta tripontzi hori, kontuz ibili errez irunsten dozuzan arrainetatik kanpo, ez itoteko!

Eta egia da. Batzuetan arrain handiegia irunsitearren, gorriak ikusten dodaz eta orduantxe gogoratu miruak esana. Beste alde batetik, arrantzaleei ere egiten deutset enbarazu apur bat, baina badakienez, arrain hondakinen bidez lortzen dabe ni handik aldentzea.

Hauxe dozue ba nik itsas aldetik dakardana eta nire beharrizantik behar badozue zatoze nire parajera eta Izaro aldean emongo doguz egun on batzuk. Itsasoko giroak ez deusue kalterik egingo. Zer deritzozue?

Antxetaren berbak eta batez ere atsedean eskeintza hega-txalo eta guzti onartu eben eta arranoak beleari eskatu eutsan berba egiteko.



Belea

Belea, baltza benetan, baltzago egingo ez dana, zozoari ipurbaltz deika ibiltzen dana, hantxe egoan, bere haitzetik kanpo autortza egiteko prest. Hona hemen bere berbak:

Kua-kua-kua, txorikideok, ni neu badakizue zelakoa nazan eta ahal dodana egiten dodala bizitzeko. Hortik aparte, zer esango neuskizue ba?


Ni, gainera, gizon-emakumeak euren ahoetan narabile txitean-pitean,

bateko esaerak dirala, besteko abestiak edota zelan ez ipuinetan. Hil eta jan ez nabe egiten nire okelea zaila ere zaila dalako, samurra izango balitz, a!, orduan batek badaki!

Abestiak aitatu deutsuedaz eta egia dinodala ikusi daizuen, kantatu egingo deutsuedaz nire ahots ederragaz gauiluntzetan aitita-amamak umeei abesten deutsiena, begira:

“Bele, bele jauna
non dok aita jauna?
Artoa ereiten.
Artoa zertarako?
Oiloarentzako.
Oiloa zertarako?
Arrautzak eiteko.
Arrautzak zertarako?
Abadearentzako.
Abadea zertarako?”

Mezea esateko?
Mezea zertarako?
Purgatorioko arimentzako.



Zer deritxozue? Ez dot ondo abesten ala? Ez da nik esateagaitik bakarrik, beste baten azeriak ere horixe esan eustan.

Azeria esan dot? Ai ene! Harek egin eustan egitekoa harako artzain bati gaztaia ostu eta lizar ihar baten puntan nengoala. Kontatu egingo deutsuet:

Esandako moduan, hantxe nengoan lizar ihar baten puntan gaztai ederra pikuan nebala eta halako baten azpian lizararren oboan-oboan ebilen azeriak badinost:

—Belea, ez dakizu zenbat gustatuko litzakidan zure ahots ederra entzutea. Ez da egongo zure moduko beste bat. Nik zuk lez kantatuko baneu, besterik ez neuke egingo neure bizitzan!


Ene!, berba horreek entzun nebazanean azeriarengandik, ez neban ikusten nire munduan neure ahotsa baino besterik eta hain sentitu nintzan harro, birritan pentsatu barik, kantateari emon neutsan eta inoiz baino gogotsuago egin ere.

Jakina, pikua askatu neban unean, gaztai ederra jausi jatan eta azeri harra-

pariak gaztai eta guzti alde egin. Ni han geratu nintzan, lotsaturik.



Beleak, bere belatasun eta belakeriak kontatu eta gero zozoari tokatu jakon bere autortza egitea.





Zozoa

Nik ere, zozo honek, beste hemengo batzuek lez, biziak bizi lan, egiten dot eta ehiztariengandik ezkutatzeke egin ahalak egin behar izaten dodaz. Hor nabil sasitzarik sasitza inork ikusi ez egiteko. Ni, martian hasten naz kabia egiten eta umeak mantentzeko jakia behar dodanez, errezen baserrieta-ko gari-artoak dodaz eta haraxe joaten naz. Horregaitik ez nabe maite eta nire izena burla egiteko ere badarabile, bateko zozotzarra, besteko zozo lumorraztubakoa, haragoko zozo-listoa...

Beti nabil lapurrak lez, esturaz beterik eta larrialdietan gorotzak ere edozein lekutan urteten deust. Begira behin baten zer gertatu jatan nire aldian ezagutu dodan udarik eta sikuenean:

Urte haretan euri gitxi egiten eban eta herritarrak urduri egozan uzta guztia alferrik galtzeko zorian. Hori zala eta, eleiz-ohitureari jarraituz, errogatibak egi-tea pentsatu eben. Errogatibak, parro-kian hasi eta Andramari baselizan amai-tzen ziran.

Ni neu, sasitza baten nengoan isi-lik, baina, beti dagoanez baten bat baz-terrak endredatzeko, ezkutaturik nengo-an sasitza ondolik errogatibetakook pasatu jatazanean, ikaratu egin nintzan. Urten sasitzatik eta airean ninoala, estu-tasunean, gorotz batek urten eustan eta

Andramariaren mantu zuriaren gaine-gai-
nean jausi. Kasualitatea ere!!!



Alde egin neban haragoko beste
sasitza batera eta geroago jakin nebanez,
beste txori bi arduratu ziran gorotza gar-
bitu eta sikatzen.

Andramariaren baselizarako bidean
iturri bat dago eta antza danez, buztani-
kareak bere buztan luzea iturriko txorro-

pean busti eta Andramariaren mantua garbi-garbi itzi eban.

Gero, bustitakoa sikatzeko, txindorrak bere paparreko luma horiska eta bigunak erabili ebazan.

Horrela amaitu zan dana. Horregaitik, buztanikarea eta txindorra herritarren lagunak dira eta ez deustie ezer egiten, niri, ostera, ez deustie bakean ere izten.

Hauxe dozue nire autortza, zeuok gura dozuena pentsatu eta egin, baina nire burua errez biratzen da arerioak arin ikusteko. Dana dala, zuhur egonda hobeto nabil, ez uso hori lez, malezia barik!



Okila

Okila izan zan zozoaren ondoren pikua zabaldu ebana eta honeexek izan ziran okil-hotsak:

Nik neuk bizitzeko beste baino ez dot jaten eta kabia atontzeko egiten dodan esfortzua kontuan hartu ezkerro, gehiago jan beharko neuke.

Txarrik autortzekotan, zuhaitz batzuetan kabia atontzeko egiten dodan eraso autortu beharko neuke. Egia esan, pagoak eta inoiz beste arbola batzuk ere


zulutzen dodaz eta horren ondorioz ihar-
tu ere egin da bateren bat.

Hortik aparte zer esango neuski-
zue ba! Gauza handirik ez. Akaso, herri-
tarren lagun edo abiapuntu egin nazala
esan behar deusuet. Abiapuntu, ez
ehiztariantzat, osterantzean baino, hots,
eguraldia jakiteko hain zuzen.

Jakin badakizue ni egarbera naza-
na eta beti nagoala kantuka euri eske.
Horregaitik, herritarrak badakie nire kan-
tuak euria dakarrena. Hortik dator esae-
rea ere, "Okilak jo ezkeru euria".

Ez daukatsuet besterik kontatzeko,
eta kabia-zuloak dirala eta esandakoa
baieztatu gura badozue, zatoze pagadie-
tara eta ikusi!







Hontza

Hontza ere han egoan geldigeldi. Egunargia zanez ez eban gauza handirik ikusten baina arranoak esan eutsan:

—Hontza, hasi hadi berbetan, gure belarriak zain jagozak, hik ere eukiko dok zer autortu gauetako ilunean bizi haz eta.

—Bai, arrano jauna, berorrek esana beteko dot berorri baino errespeto handiagorik inori ez deutsodalako.


Dakizuenez ni beti nabil gauez, saguzarra lez. Gauetan mundu guztia dago lotan edo gitxienez bakoitza bere kabietan. Horregaitik gose izaten naz sarritan, zer janik ez dodalako aurkitzen.


Gose kontuetan, eta autortu behar banau haxe egingo neuke, eskerrak eleiza eta baseleiza batzuei.

Eleiza eta baseleiza askotan su-argia egoten da izioturik eta jakina, metxeak sua egiteko orioa izaten dau ontzian. Horixe orio hori da sarritan gure janari edo hobeto esanda edari. Fetxoria hori dala eta, sarritan eleizea zaintzeko arduradunak hasarre ibiltzen dira oriotarako ere ezin dabelako egin.

Orio hori dala eta, gorotzak ere kirats astunagokoak egiten doguz eta begiratu zer gertatzen dan leku batzuetan:

Gure gorotzak bidekurutze baten egiten badoguz eta gero handik herritarren bat pasatzen bada, sorgin-kiratsa dagoala esaten dau. Esan bakarrik ez, sinestu ere bai batek baino gehiagok.







Saguzarra

Ni, saguzarra, ugaztuna izanik txorien artean sartu nozuenez, nik ere zeozer autortu beharko deutsuet. Zeozer argitzekotan, nire hegaz egiteko modua izango litzateke. Radar moduko hau ez baneu honezkero birrindurik nengokean arbola-enbor edo hormaren baten kontra. Baina ikusten dozuenez, banabil zulorik zulo eta osorik.

Herritarren artean, umetxoak nabe maite, esne-hagin bat jausten jakenean, hartu hagin zahar hori, etxe edo labe gai-

neko teilatura bota eta barria eskatzen
deustielako abesti polit hau kantatuz:

“Saguzarra
eutsi hagin zaharra
ekarten ez badozu barria
saguzar buru handia.”

Jakina, esne-haginaren ostean
barria beti datorrenez, ez naz izango
inoiz buru handia, umeen laguna baino.

Hortik aparte zuhurra ere banaz
eta ugaztun hegalaria izateak bere aban-
tailak dauz.


Behin baten, lozorroan nengoala
kobazulo baten sabaitik dingilizka, jausi
egin nintzan zorura eta hegoak luzatzen
hasi baino lehen ogigaztae batek harra-
patu ninduan jateko asmoz. Nik orduan,
zuhur jokatuz esan neutsan:

—Zertan zoaz?

—Zertan? —erantzun eustan ogi-gaztaeak ahotik adurra dariola—. Ba, jaten! Ez dakizu ba txoriak dirana nire janaririk dastagarrienak!

—Bai, badakit, baina ni ez nozu txoria, ni sagua naz, begira ahoko haginak!

—Ene, bai barriz, sagu itxurea daukazu. Zoaz, horrexek libratu zaitu, bestela?



Halaxe libratu nintzan. Beste egun baten ere bardin gertatu jatan, baina orduan ez zan ogigaztaea, basa-katua baino. Harek ere bardin esan eustan:

—Jan egin behar zaitut. Ez dakizu saguak dirana nire jakirik gozoenak?

—Bai, badakit —erantzun neutsan—, baina ni ez nozu sagua, txoria baino.

—Eskerrak horri, bestela zureak egin eban!

Kasu haretan ere zuhurtasuna erabiliz salbatu neban neure burua.

Gustura entzun eben saguzarraren hitzaldia eta batek baino gehiagok zuhur jokatzeko bidea ere landu, usoak bereziki.



Kukua

Hurrengo txandea kukuarena izan zan. Txepetxak ere hur ikusten eban berea eta dar-dar egoan dagoaneko.

Kukuak ere kuku-hots batzuk bota ebazan urduritasunak kentzeko eta hone-la hasi eban bere kuku-autortza:

Nonbaitetik hasteko, zera esan behar deutsut, ni martxoko Andramarietatik ekaineko San Pedroetara bitartean bakarrik naukazuela zuon artean.

Ni Euskal Herrira natortzuenerako, dana dago lorez beterik, lore batek neure izena daroa gainera, “kuku-praka” deritxonak hain zuzen ere. Haritz batzuetan ere sagar antzeko bat sortzen da udabarrian eta neure izena daroa, “kuku-sagarra”. Ez da jatekoa baina udazkenean guztiz sikatzen danean, “kuku-bola” izenez ezagutzen da eta umeen jostailuetariko bat da, gaur egun beste era bateko hainbat jostailu sofistikatu egon arren.

Beste alde batetik, ni kuku-kantuka natortzue eta herritarrak ere zain egoten dira ni noiz etorriko. Urteko lehenengo kuku-hotsa entzuten dabenean, herritar guztiak botaten dabe eskua poltsikora ea dirurik daukien ikusteko eta holan bada ez ei jake urte horretan dirurik faltako.

Hau dala eta, behin baten baserri-
tar bi eztabaida gorrian ebilzan kukua
lehenengo nork entzun dauan auziari
urtenbidea emon ezinean. Horretara,
abokatu batengana joatea ebatzi eben.
Esan eta egin. Joan ziran abokatuarenga-
na eta arazoa planteatu. Abokatuak, ohi-
turea ebanez, aurretik eskatu eutsen
dirua. Entzunak entzun eta ebatziak
ebatzita hauxe izan zan epaia:

—Hara, bion artean konpondu
ezin zarienez, badakizue aurten nori
dakartson diru-zoriona kukuak? Neuri,
zuon bion diruari esker!



Autortzarik egitekotan, badodaz pare bat hutsegite kontatzeko eta behar-bada larriena hauxe dozue:

Egunero-egunero kuku-hotsean ibiltarren, ez daukat astirik neuretzako kabiarik egiteko eta horregaitik, urtero-urtero beste txori txikiagoen kabietan erruten dodaz nire arrautzak, gehienetan amilotxaren kabian.


Gero, jakina, amilotxak nire arrautzea eta bereak ezartzen dauzanean, hara han non aurkitzen dauan kukukumea, bere umeak baino askoz handiago eta goseberago. Amilotxak, horregaitik, ohizko baino behar gehiago dauka jaki bila.

Eta txarrena ez da hori, kukukumeak, hazi eta janzten danean, leku handia behar izaten dau eta amilotxaren

umeak kabiatic kanpora botaterainokoak egiten dauz. Jakin badakit hori ondo ez dagoana, baina bestela zelan ekingo deusat ba kukuotsari?

Esandakoaz nahikoa dala uste dot eta ez ahaztu ni zuentzat bidazti bat baino ez nazala, nik neure tertzioan, hegoalderantz joko dot datorren urterarte.

Hortxe amaitu eban kukuak bere autortza eta txepetxa zan autortzeko falta zan bakarra.





Txepetxa

Txepetxa, ia-ia usoaren hegapean sarturik egoan eta bildurraren bildurrez ausartu ere ez zan egiten pikua askatzen.

Baina, halakoren baten, usoak animatuta zutundu egin zan eta bihotzetik indarrak aterata honela berba egin eban:

Ni txoririk txikiena nozue eta zuon aurrean berba egiteak bihotz ikarak emoten deustaz. Baina egin behar badot egingo deustuet nire autortza.

Nik ezin dot gura izanda ere gauza handirik sartu nire birapoan eta horregaitik eltxoak, inurriak eta holakoak bakarrik jaten dodaz. Pozik bizi naz neure kabia biribilean. Umeak ere pozik egoten dira nire kabia aurkitzen dabenean eta han ibiltzen jataz kabia-zulotik begira zenbat arrautza lehenengo eta gero zenbat txepexkuma dodazan ikusten.

Ai ene! Baina arranoaren begiradea ikusten dodan bakoitzean, halako baten egin neutsan fetxoriaz gogoratzen naz. Autortu egingo deusuet.

Zuok jakingo dozue zelan neurtu genduzan gure indarrak behin baten hegaz zeinek gorago egin jardunez. Ba, zuok, arranoa hartu zenduen txapelduntzat orain kontatuko deusuedan sekretorearen barririk ez dozuelako.

Egun haretan, danok hasi ginan hegaz gora eta gora. Ni beti ninoan atzetik nire hegoak ez diralako gehiagorako. Baina zuhurtasunak jota, inortxo ere konturatu ez zala, arranoa bera ere ez, hantxe, arranoaren hegape baten estali nintzan ahal neban lez oratuaz. Apurka-apurka, zuetariko batzuk atzean geratu zinen eta banan-banan txapelketatik erretiratu. Azkenerantz, arranoa eta saia geratu ziran. Norgehiagoka gogorra izan zan baina azkenean arranoa izan genduan nagusi. Arranoak bere burua bakarrik ikusi ebanean, beherantz begiratu eta holan hasi jaken esaten ohizkoa eban harrokeriaz:

—Hemen nozue, gorengo. Neu naz txorien erregea eta eskubide osoa daukat zuoi edozein agindu emoteko. Bai, neu errege, errege, errege...


Berbok amaitu ebazanean, arrano-aren hegapetik urten eta hegazkada txiki batez gorago igon neban eta esan arranoari:

—Hemen naukazu, txepetxa naz eta zu baino goragotik nabil!

—Baina, zelan? —esan eustan deiadar eginez arranoak—. Zuk zelan egin daikezu nik baino gorago, lurretik hegaz hasi eta laster ikusi ere ez zaitut egin eta?

Ni neuk orduan, deskalabruren bat gertatu ez eitean, egia esan neutsan eta haizea behera hasi nintzan. Arranoak atzerik hara jarraitu eustan bere piku handia zabalik eta ia-ia harrapatzekotan ninduala, hodei lodi baten barruan sartu nintzan eta hantxe salbatu neure burua. Hauxe da guztia.







Epaia

Txepetxaren autortza entzun zanean, han sortu zan sortzekoa! Arranoa hasarre txepetxak agirian itzi ebalako, beste txori batzuk txepetxaren alde baina saia soportatu ezinik egoan goragoraka saltoka eta halako baten badino:

—Ikusten dozue nor dogun gure eltxarraren erruduna? Txepetxa! Zelan ausartu dan ere arranoari egin deusana egiten? Baina, baina, txepetxa gu guztion gaineratik? Ez, ez horixe! Atrebentzia horretan barruregi sartu da beste ba-

tzuon eta bereziki arranoaren mugarrietan. Beraz, txepetxa da erruduna eta horrexegaitik etorri jaku eltxarra. Zigorra, eskarmentu-zigorra behar dau txepetxak, zer deritxozue?

Dan-danak isildu ziran. Arranoak begirada bat bota eutsan oboan-oboango txoritegiari eta saiak esandakoan oinarrituz epaitu egin eban txepetxa esanaz:

—Errudun zara, txepetxa. Zigor lez, udabarri honetan zeure kabiatic urten barik egongo zara eta ez dozu beste txorietako inoren bisitarik hartuko. Zoaz gure begien bistatik!

Burumakur joan zan txepetxa bere kabiara eta han igaro eban udabarri osoa baina ez arranoak uste eban lez, laguntasunean baino. Usoa izan zan egunez janaria eta gagnetikoak lortzeko arduratu

zana eta gero gauez, hontzaren bitartez
heltzen zan txepetxaren kabiara bizitzeko
behar ebana. Txepetxaren aurkakoren
bat hurreratzen zanean zigor egoerea
ikusteko, matxinsaltoak arduratzen ziran
txori gaiztook desbideratzen.




Txepetxak, epaiaren barri jakin ebanetik eta harik eta zigorra bete arte, zenbat bider esan ete eutsan bere buruari herri-esaera hau:

“Munduan beti galduko dira alperrik: itsasoko euria, izarren egun argia eta pobrearen egia”.







Hiztegia

Birapo: hegaztiak daberen boltsea, janaria gordeteko eta liseriketa aurretik biguntzeko.

Egarbera: sarri egarri dana. Egardia daukana.

Eltxarra: har mota txiki batzuk eragindako gaixotasuna.

Gosebera: sarri gose dana. Erraz gosetzen dana.

Harro: trinkotasunik bakoa, barruan hutsuneak dauzana.

Ihar: lehorra, sikua.

Lokatu: oiloa txitak aterateko arrautzak berotzeko moduan jarri.

Mamarroa: lurrian dabilen har gorriska eta luzea.


Oboan-oboan: inguruan, bueltan-bueltan.

Oilalokearen lokakeriak: arrautzak ezarri eta txitak haztean egiten dauzanak.

Tripa-zorri: gose.

Zaila: gogorra, samurra ez dana.





Aurkibidea

Txori-batzarra	7
Arranoa	15
Saia	19
Usoa	25
Mirua	31
Antxeta	35
Belea	39
Zozoa	45
Okila	49
Hontza	53
Saguzarra	57
Kukua	61
Txepetxa	67
Epaia	73




- 1 Ostadarraren zazpi ateak
- 2 Mister Popoffen abestia
- 3 Nijterida eta Koomori saguzarrak
- 4 Txorien zoria
- 5 Pako belea
- 6 Dragoi dantzariak

OROIMENAGAZ JOLASTEN

*Gogoratzen dozuzan
pasarteen arabera
margotu
nire neurgailua!*






- Arranoak txori-batzarra antolatu dau kobazuloan.
- Arranoak Mairulegorretara ibialdia antolatu dau.
- Arranoak jaialdia antolatu dau Mairulegorretan.



- Okila beti dabil kantuka eguzki eske.
- Okilak arbolak zulutzen dauz janaria gordetzeko.
- Okilak arbolak zulutzen dauz habia egiteko.



- Miruak arrainak jatea gogoko dau.
- Antxeta arrain-jakiaz elikatzen da.
- Zozoa, itsas-txoria da.



- Hontzak egunargiz he-
gaz egitea gogoko dau.
- Hontzak bere etxetik
gitxitan urteten dau.
- Hontzak gauez ibiltea
gogoko dau.



- Inurria usoaren bildur
da.
- Inurriak usoari bizitza
salbatu deustso.
- Usoa eta inurria ez dira
alkarregaz ondo kopon-
tzen.



- Txepetxak lagun asko
daukaz.
- Txepetxa eta arranoa
lagun onak dira.
- Txepetxa eta usoa lagun
handiak dira.



Ipuin antzeko
alegia honetan,
Euskal Herriko
itsas-lurretan ezagun,
esanguratsu eta
geure-geureak
doguzan txorien
arteko gertaera-
-epaiketa ikasgarri
bat kontatzen da.
Epaiketa horren
nondik norakoaz
batera, txori eredu
bakoitzaren izaerea
eta lekuan lekuko
bizikera herrikoi eta
istorioz betea azaltzen
jatzu, euskera bizi,
gozo, mamitsu,
herrikoi eta aberatsa
lagun dozularik.

8 urtetik aurrera



72653



®

